

Izenburua	<i>Bazara proiektua</i>
Formatua	Irakasleen/ikastetxeen material/jarduera esanguratsuak
Egilea	Arizmendi Ikastola
Kontaktua	aantero@arizmendikide.net
Nori zuzendua	LH tik batxilergorako ikasle guztiei
Justifikazioa	2004.-2005. urte bitartean Arizmendi Ikastola barruko hainbat gunetan (Ferixalekua, Almengunea, Santa Teresa eta Sanvi Txiki) "Herri eta Hizkuntzen Ekologia" izeneko ikastaroa hartu zituzten bertako irakasle guztiek. Azaroaren 7an eta 14an berriz, gune bateko irakasleen iradokizunez, Arizmendi Ikastolako KTiko kideek eta A eta D mahaiko kideek ikastaro bera jaso zuten eta honen ostean, gai honek garrantzi handia zuela ondorioztatu zen eta bertan planteatzen ziren kontzeptuak, ideiak, ikuspegiak, etab. Arizmendi Ikastolaren proiektuan txertatu beharrekoak zirela ikusi zen eta hala, proiektuak izan nahiko lukeenaren lehen oinarriak finkatzen hasi ziren.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzekiko jarrerak landu eta portaerak bultzatu • Ezagutza elkarrekin eraiki. Honen barruan, hizkuntzen garapen sozialari (soziolinguistika) eta hizkuntzen arteko elkarbizitzari (hizkuntza ekologia) buruzko ezagutza zientifikoa transmititu
Metodologia	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak ikasturte guztian zehar saio ezberdinak proposatzen ditu. Horietako batzuk ikastetxean formatu diren irakasleek gidatuak eta beste zenbait kasutan kanpoko eragile edo pertsonak gidatuak. Proposatutako jarduera batzuk ikastetxetik kanpo antolatzen dira baita herritik kanpo ere ikasleek errealitate soziolinguistiko ezberdinen inguruko hausnarketa egin dezaten bultzatzeko.
Denboralizazioa	Ikasturte osoan zehar
Eranskinak	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuaren laburpena:

	<p>https://labur.eus/546Ik</p> <ul style="list-style-type: none">• Bazara saioen aurkezpena eta gida DBH4n <p>https://labur.eus/CU45Q</p> <ul style="list-style-type: none">• Bazara saio guztien sekuentzien laburpena <p>https://labur.eus/CrolJ</p>
Oharrak	Proiektua ikastetxe bakoitzaren errealitate eta helburuetara egokitu behar da